

IRABAZI XEDERIK GABEKO ELKARTEEI DIRULAGUNTZA IZENDUNAK, ZUZENeko DIRULAGUNTZAK EDO ITUNPEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

1. AZALPENA:

Urtean zehar kirol, kultura, hezkuntza, aisialdi eta antzerako ekintzak antolatzeke herriko taldeei zuzendutako dirulaguntzak.

2. EPEA:

Eskaerak Udaletxean aurkeztu beharko dira, urtearen hasieratik, ekainaren 30a arte.

Martxoaren 31 baino lehen, aurreko urteko diru laguntzaren zuriketa egingo da.

3. BEHARREZKO DOKUMENTAZIOA

3.1. URTEKO DIRULAGUNTZA ESKATZEKO

1. Diru-laguntza ESKAERA inprimaki normalizatua behar bezala beteta.
2. Aurreikusten diren ekintzei buruzko PROIEKTUA inprimaki normalizatua behar bezala beteta.
3. Aurreikusten diren Sarrera eta gastuen AURREKONTUA inprimaki normalizatua, zehaztuz zenbateko diru laguntza eskatzen zaion Udalari.
4. Diru laguntza eskaera 4.000 eurorik gorakoak direnean, Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunera egotearen eta Ogasuneko betebeharrak betetzearen agiria.

3.2. AURREKO URTEKO DIRULAGUNTZA ZURITZEKO

5. Egindako ekintzei buruzko AMAIERAKO MEMORIA inprimaki normalizatua behar bezala beteta.
6. EGIAZKO Sarrera eta gastuen AMAIERAKO BALANTZE EKONOMIKOA inprimaki normalizatua, urte amaierako defizit edo superabita zehaztuz.
7. FAKTUREN ZERRENDA inprimaki normalizatua.
8. Euskararen Udal Ordenantzaren 20. artikuluan zehazten dena (euskara eta euskara eta gaztelania erabiltzea ekintzaren zabalpena egiteko) bete dela kredita dezaketen agiri grafikoak (Kartel, eskuorri...).
9. Udaleko Berdintasun Planean zehazten dena (hizkuntza ez sexista erabiltzea eta pertsona irudiak marraztuz gero, sexuen arteko oreka gordetzea, eta sexu diskriminazioa erakuts dezakeen egoerarik ez irudikatzea) bete dela kredita dezaketen agiri grafikoak (kartel, eskuorri...).

4. BALDINTZA OROKORRAK

Dirulaguntzak jasotzen dituzten ekintza guztiek, ondorengo gaiak bermatuko dituzte:

- 1- Ekintzen publizitatean, Soraluzeko Udalaren laguntza jaso dela adieraztea. (Izena eta armarrria)
- 2- Ekintzen publizitatea euskaraz, edo euskaraz eta gaztelaniaz, egitea
- 3- Ekintzetan eta hauen publizitatean, emakumezko eta gizonezkoen arteko berdintasuna bermatzea.
- 4- Dagokionean, naturarekiko errespetua sustatuko da, beti ere berau zainduz eta errespetatuz.
- 5- Ekintza espazio publiko baten egiten denean, amaieran garbitu eta hurrengo erabilerarako prest utzi beharko da.

5. BESTE ZENBAIT OHAR INTERESGARRI

Erakundeak ez du zorrik izango Udalarekin, nahiz eta honi dagokionez, ez den egiaztagiririk aurkeztu beharko.

6. DIRULAGUNTZAREN ORDAINKETA:

Dirulaguntza zati bakarrean ordainduko da.

